

Elgoibar - 1301. zenb.
XXX urtea - 2023-10-06

TOKIKOM



BARREN

Onenekin lehian



HEZITZAILEAK BEHAR DITUGU

Atxutxiamaiak urtean zehar
garatzen dituen ekintzetarako

ESKATZEN DA:

- Ahozko euskara maila handia izatea.
- 16 urtetik gorakoa izatea

ESKAITZEN DA:

- Trebatzeko aukera

Interesdunek lan poltsan eman behar dute izena:

labur.eus/eilanpoltsa



EUSKARA ERREFORTZUAK EMATEKO HEZITZAILEAK BEHAR DITUGU

(eguerdi eta arratsaldeetan)

ESKATZEN DA:

- Ahozko euskara maila handia izatea.
- 16 urtetik gorakoa izatea

ESKAITZEN DA:

- Trebatzeko aukera

*Lanaldia zehaztu gabe dago oraindik

Interesdunek lan poltsan eman behar dute izena:

labur.eus/eilanpoltsa



LAGUNDUKO AL DIGUZU ELGOIBARKO IZARRAREN 2023ko **TONBOLA** OSATZEN?

Aurreko urteetan **TONBOLAK** izan duen estimazioak bultzatuta, abenduaren 24an Elgoibarko Izarraren tonbola jarriko dugu Kalegoen plazan. Ehunka erregalu banatzea da gure desioa, baina horretarako zure laguntza behar dugu.

Animatuko zara tonbolarako erregalua ematera? Animatzen bazara, esan, ahal duzun azkarren, tonbolarako erregalua emateko prest zaudela. **Azaroaren 24a** izango da erantzuteko azken eguna. Eskerrik asko!

Harremanetarako:

elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus

943 744 112



Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

barren@elgoibarkoizarra.eus

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoan erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasola, Maialen Sanchez, Leire Kerexeta, Anjel Ugarteburu. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



facebook.com/barrenaldizkaria



twitter.com/barreneus



instagram.com/barrenaldizkaria



youtube.com/@Elgoibarrennet

Izaro Etxegibel Soraluze Euskara teknikaria

Txiki*



*"... itsasotik irten,
hondarra zapaldu,
eguzkitan etzan eta
lehortzea..."*

Sandaliak janzea; loreen usaina; irribarre bat; ilargi betearen argia; arbola baten itzala; aspaldi ikusi ez duzun lagunaren mezua jasotzea; eguzkia nola ezkututzen den ikustea; gailurra zapaltzea; norbait zure zain dagoela jakitea; maindire garbiak; zurekin gogoratu dela jakitea; dutxa beroa; muxu bat; goizean goiz kafea; beti alai dirudizula entzutea; terrazan afaltzea; izarrak ikustea; olatu hotsa; espero gabeko besarkada; basoan galtzea; itsasotik irten, hondarra zapaldu, eguzkitan etzan eta lehortzea; liburu berriak ukitzea eta usaintzea; belar usaina; ekaitza datorrela ikustea; basoan galtzea; Martini bat; etxean sartu, galtzerdiak kendu eta hazka egitea; irakurtzean negar egitea; masustak hartu eta jatea; gaztainak laster direla jakitea; perretxikoak saskian sartzea; bigarren armozua; ostiraleko zuritoa; film bat ikustea; hego haizea; hostoak hori-gorri-laranja; seme-alaben irribarrea; kotxean ozen kantatzea; lagun bat defendatzea; arbolak loretan; aspaldiko ikasleen mezuak jasotzen jarraitzea; elkarrizketa bat goizaldean; lo lasai egitea; tximiniaren ondoan egotea; tak-tak leihoan euria entzutea; triste zaudenean bizkarrean sentitzen duzun eskua; lagunaren ume txikia besoetan hartzea; laranja-zuku hotz-hotza; maite duzun horrek zuretzat prestatutako afaria; lagun astakiloak "Ze guapa zauden" esatea; oporretako lehen eguna; "Ze ordutan etorriko zara?" galdetzea; udazkena; negua; udaberria; uda.

Ezer gutxi garrantzitsuagorik eguneroko bizitzako keinuak baino. Keinu txikiak aldatu izan dute mundua eta plazer txikiak dira zoriontasunerako zubi. Betoz plazer handien gonazpietara, plazer eta keinu txikiak pilotuta, elkarren ondoan, edo bata bestearen atzetik, ilaran. Nola jakin, bestela, zer den haundi ñimiñorik gabe.

BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Oharra

Urriaren 12an jai eguna dela-eta, datorren astean ez dugu BARREN astekaria kaleratuko. Hurrengo alea urriaren 20an jasoko duzue.

BARREN

Elosutik Zizurkilera, Gipuzkoako mendiak aske

Konturatu orduko urtebete pasatu da Zumarragako lehen bilera hartatik. Gehienok ez genuen elkar ezagutzen, eta hala eta guztiz ere, gai izan ginen elkarrekin, bakoitza bere herritik, Elosun gertatuko zena irudikatze eta elikatze. Komunikazioa, autobusak, kartelak, ordutegiak, agerraldia, nork zer esan, pintxoak, bazkaria, musika...

Elosukoa ez zen Elosun bukatu. Belardi handi hartan osatu genuen aerosorgailuaren bueltan esan ziren hitzek, hango irrintziak eta sortu ziren emozioek ekarri gaituzte hona han ginenok: orduan josi genuen sarea ez dela desegin esatera. Are gehiago, pertsonak osatutako haize-errota belarditik at zabaldu zen bezala, gure sarea ere zabaldu egin da.

Ez pentsatu, ordea, sarea berez zabaldu denik, pagoek beren adarrak luzatzen dituzten maneran. Makroproiektu energetikoen mamuek eta elkartasunak zabaldu dute Gipuzkoako Mendiak Aske; eta Gipuzkoan bezala, gainontzeko lurraldeetan.

Urtebetean asko ikasi dugu, eta sareak egituratzen duen hari bakoitzaren jabe egin gara, argi dugulako sarerik gabe are babesgabeago egongo garela, tsunami elektriko honen aurrean.

Babesgabetasunaren zuntzak gutxienez lau hari eskaintzen dizkio gure sareari: ez dugu ezagutzarik; denboraz ere, larri gabiltza; diruaz zer esan; eta lege eta arauak beste batzuenak dira. Indartsua da babes ezak gure arteko sareari eskaintzen dion lehengaia. Gure arteko babesa baino ez dugu. Batzuei lehenago iritsi zitzairen mehatxua, lehenago murgildu behar izan zuten lege eta arauen itsaso arrotz horretan, eta

alegazio epeek eta burokraziek ezartzen dituzten itsasaldien aginduetara mugitu.

Gizarte honek ez du eskubiderik umeen eta gazteen bizitzak ezinezkoak egiten dituen sistema ekonomikoa elikatzen jarraitzeko. Gero eta ageriagoa da makroproiektu horien helburua ez dela naturaren eta bizitzaren zaintza, baizik eta multinazional, inbertsio-funts eta gainontzeko tiburoien interesen zaintza.

Sinestarazi nahi digute itsasoa, mendiak eta soroak industrializatuz hobeto biziko garela, zoriontsuagoak izango garela. Ez digute esaten, ordea, haiek gabe ez dagoela jaterik, ez dagoela arnasterik, ez dagoela pozik, ez dagoela, azken finean, bizitzerik. Ez digute esaten ekosistema horietan guztietan bizi direnen beharra dugula, gure babesa direla; ez garela ongi biziko horiek guztiak desagertuz gero. Hau da, elkarrekiko mendekotasuna dela bizitzaren araua.

Elkarrekin eman dugun urtebete honetan, Gipuzkoako Mendiak Aske osatzen dugun taldeetan, ezinek bere horretan jarraitzen duten arren, sentitzen dugu badugula zer ospatu -bidea gozo-gozoa izan ez den arren- eta badugula zer eskaini gure jendarteari. Horregatik, gonbidatu nahi zaitugu datorren urriaren 22an Zizurkilera. Eguerdian izango den bertso-saioan ireki nahi dizugu paisaia zabala erakusten duen leihoa, bertsotan hemengo eta hango energiak hausnartzeko aukera, zabal eta patxadaz. Ondorengo bazkaria eta abarrek beste giro bat sortuko dute -atsegina hau ere-, eta indarra bilduko dugu hurrengo urtean ere hemen egoteko.

**Eskeltzu Bizirik, Oletan ere ez,
Sañu Bizirik eta Errezil Bizirik**



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus



943 744 112



688 655 658



Zakarrak zabor edukiontzira bota

behar dira: "Arregitorre inguruan zakar asko egoten da lurrean zehar botata.

Edukiontzi kanpoan lagatzen du zaborra jende askok, eta gero, dena sakabanatzen da".



Mendaroko Garagartza auzoko igogailuaren ondoan txiza egiten

dute: "Garagartza auzotik Herriko

Enparantzara doan igogailuaren ondoan sekulako kiratsa egoten da, jendeak bertan egiten duelako txiza. Errespetua eskatzen dugu".



Altzolako tren geltokiaren aldeko plataformak eskerrak eman ditu:

"Debako Euskal Jaia baliatuta, Altzolako tren geltokiaren aldeko sinadurak biltzen aritu ginen zapatuan, eta 800 sinadura batu genituen. Eskerrak eman nahi dizkiegu parte hartu zuten guztiei. Deban, Zumaian eta Mendaron oso kontzientziatuta daude tren zerbitzuaren arazoarekin, eta beraiek ere 5.000 sinadura bildu dituzte dagoeneko, trenaren maiztasuna ordu erditik behin izan dadin, ordubetea behin izan beharrean".



Osakidetzako larrialdietako zuzendari izendatu dute Ane Beitia



Ane Beitia Arriola (Elgoibar, 1965) izango da Osakidetzako larrialdietako zuzendari berria, 2015. urtetik aurtengo maiatzera arte Elgoibarko alkate izan dena EAJ alderditik. Oscar Aller Garcia ordezkatu du karguan elgoibartarrak.

Medikuntza eta Kirurgian lizentziatua da Beitia eta 2015era bitartean, Elgoibarko alkate izan aurretik, alegia, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailean jardun zen lanean, 11 urtean irakasle

izan baitzen Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian, Arkauten. Arkauten egin zuen azken urtean prebentziorako teknikari gisa jardun zen lanean Segurtasun saileko Lan Arriskuen Prebentzio departamentuan. Jaurlaritzako Osasun Saitetik jakinarazi dutenez, sektoreko Medical Dom eta Nextgrup enpresetarako ere aritu da lanean Beitia, Osakidetzaren osasun zentroetan zein Gipuzkoako zahar-etxeetan.

Ezkur bilketa eguna antolatu du Mendaroko Udalak, Zestoan, urriaren 14rako

Zestoako Udalarekin eta Itziarko Auzo Udalarekin elkarlanean eta Naturtzaindia elkartearen laguntzarekin antolatu du Mendaroko Udalak ezkur bilketa eguna, hemen bertako arte basoak berreskuratzeko. Urriaren 14an izango da ezkur bilketa, Zestoan. Zestoako plazatik abiatu

(09:00etan) eta Aizarnarako bidean jardungo dira ezkurak biltzen eta ondoren elkarrekin bazkalduko dute Aranburu jatetxean.

Izena emateko helbide honetara idatzi behar da: inforaturtzaindia@gmail.com. Izena emateko azken eguna, urriak 10. Prezioa, 22 eurokoa da.



24/7 plataformak hasi du ikasturtea

Joan zen astean ekin zioten 24/7 plataformakoek ikasturte berriari, eta ohi duten moduan, anbulatorio aurrean egin zuten protesta. Osasungintza publikoa indartzeko eta, bereziki, Elgoibarko anbulatorioa asteko zazpi egunetan eta 24 orduz zabaltzeko eskatzen ari dira.

Harreman zintzoak lantzeko saioak antolatu dituzte Almaurrek eta Udalak

Harremanak ulertzea berdintasunerako bidea jarri diote izenburua eta hiru topaketa antolatu dituzte azaro-abendurako. Lilan izango dira hirurak, domeketan, 10:00etatik 14:00etara, doan. Harreman zintzoak nola sortu eta sendotu landuko dute eta sortzen diren zailtasunei aurre egiteko baliabideak ere landuko dituzte, taldean. Elkar hobeto ezagutu nahi duten pertsoneri eta emozioak kudeatzeko

gaitasuna garatu nahi dutenei zuzenduta daude saioak, eta azaroaren 19an, eta abenduaren 3an eta 17an izango dira.

Horrez gain, Almaurretik aurreratu dute beste bost saio ere lotzen ari direla elkartetik, baina zehaztu dute aurrerago emango dutela egitarau osoaren berri. Saio guztiak Belen Capape dantzateraupetak gidatuko ditu. Izena emateko. 656 869 534 (Whatsapp).

Harrera egin diete Elgoibarrera etorri berriei

Elgoibarren berriki erroldatu diren 139 lagunei harrera egin zien zapatuan Maialen Gurrutxaga alkateak. Herriaren ezaugarriak aurkeztu eta informazioa eta Harrera Gida banatu zieten. Udaletik jakinarazi dute datozen asteetan herriko eragile eta elkarteekin harremanetan jarriko direla Harrera Planaren bigarren fasea garatzeko eta bere osotasunean ezartzeko Elgoibarren.



Jende asko eta askotarikoa bildu da gaueko zerua ezagutzeko irteerara



Ostiralean egin zuten irteera Baso Biziak, Morkaikok eta Atxutxiamaikak antolatuta, eta antolatzaileen arabera, jende asko eta askotarikoa bildu zen Idotorben gaueko zerua ikusteko asmoz. Ez zen, baina, izarrak ikusteko egunik onena izan, lainotuta egon zelako. Hala ere, Jokin Martinez gidariaren azalpenekin gozatzeko aukera izan zuten han bildutakoek eta pozik agertu dira antolatzaileak partehartzaileek egindako balorazioekin.

Gourmet Bag kanpaina abiatu dute, ontziak eskaintzeko jatetxeetan jaten dutenek jakiak etxera eraman ditzaten

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ingurumen Departamentuak bultzatu du ekimena, Gipuzkoako Ostalaritza Elkartearekin eta Impact Hub Donostiarekin batera, eta ekimenaren helburua zera da: jatetxeetan jan dutenei ontziak edo Gourmet Bagak ematea, soberako jakiak etxera eraman ahal ditzaten. Hirugarren edizioa da aurtengoa eta bost udalerritako 25 taberna/jatetxek parte hartuko dute. Horiei 2.000na ontzi banatuko dizkiete, informazioa emateko materialarekin batera, doan. Parte hartuko duten establezimenduetakoei tailer labur bat ere emango diete, gaiarekin sentsibilizatzeko. Kanpaina uztailan amaituko da, eta indarrean dagoen bitartean, sustatzaileek jarraipena egingo dute,



ontziak zenbateko maiztasunarekin banatzen dituzten jakiteko eta balorazioak jasotzeko. Kanpaina parte hartzeko ondorengo baldintzak bete behar dituzte tabernek: kanpainaren materiala bistan jartzea establezimenduan; bakarrik plateran sortutako soberakinatarako erabiltzea kutxak eta Gourmet poltsa modu praktikoan eskaintzea bezeroei, haiek eskatu beharrik izan ez dezaten.

Dislexia ezagutzera emateko hainbat ekitaldi antolatu dituzte biharko

Urriaren 8an dislexiaren nazioarteko eguna dela-eta, aste osoan zehar ekitaldiak izan ditugu Elgoibarren, Debabarreneko Dislegi elkarteak antolatuta. Bihar iritsiko da ospakizunen egun handia, eta aurtengoa gainera, Gipuzkoa mailakoa izango da. 11:00etatik aurrera haurrentzako entretenigarriak egongo dira Lekuederren, eta 12:30ean Niala magoaren ikuskizuna egongo da. 13:30ean, kalejira Mauxitxa txarangarekin, eta 15:00etan bazkaria egingo dute Sanlobeer garagardo ferian. Bazkalostea Mauxitxak girotuko du. Gau horretan, bestalde, Aita Agirre eraikina argizatuko dute.



Pentsio duinen aldeko manifestazioa egingo dute urriaren 16an



Elgoibarko Gaugerora taldekoek pentsio duinen aldeko borrokan jarraitzen dute, eta astelehenean bilera egin zuten, ikasturte berrirako helburu eta zereginak zehazteko. Bestek beste, urriaren 16an Elgoibarko kaleetan manifestazioa egitea adostu dute, pentsio sistema publikoa sendotzea eskatzeko.

Jolasaren Astea antolatu dute urriaren 16tik 20ra bitarterako

Atxutxiamaiak, Udal Ludotekak eta Udal Gaztelekuak Jolasaren Astea antolatu dute urriaren 16tik 20ko asterako, herriko beste hainbat eragilerekin elkarlanean: Eskola Kirola, Zubi Ondo xake elkarte, Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskola, Lanbide Heziketa, San Lazaro zaharren egoitza eta Egur Arte Tailerra, besteak beste. Jolasa kalera aterako dute, eta adinka banatuko dituzte jolas guneak. Helburua herritarrei jolasak duen garrantzia helaraztea da, sormenerako baliabideak beraien eskura jarritz. Berrikuntzen artean, Geocaching mundu mailako jolasa Elgoibarrera ekarriko



dute. Sakelakoa erabiliz edo paperezko mapaz baliatuz herriko hainbat puntutara bertaratu eta bertan kokatu dituzten objektuak aurkitzea izango da jokoaren helburua. Informazio guztia: labur.eus/jolasarenastea

Altzolako trenbide saihesbidea egiteko obrak hasi ditu Euskal Trenbide Sareak

Euskal Trenbide Sareak, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren mendeko ente publikoak, Altzolako saihesbidea eraikitzeke obrak hasi ditu. Obrak Altuna y Uria SA enpresak egingo ditu, eta 2025erako amaituta egotea aurreikusten da. 12 milioi euroko aurrekontua izango du obrak. 500 metroko luzera izango duen tunel batek egungo ibilbidea laburtuko du eta bi trenbide-pasagune kenduko ditu. Ibilbidea murrizteaz gain, tunel osoan trenbidea bikoizteak bidaiarien eta salgaien unitateak gurutzatzea ahalbidetuko du. Hau da, trenbidearen zerbitzu-gaitasuna handituko da, eta, gaur egun, 60 minuturo zirkulatzeko aukera ematen du noranzko bakoitzean; 30 minuturo igaro ahal izango da joan-etorrietara. Maialen



Gurrutxaga Elgoibarko alkateak esan du obra hau "apustu estrategikoa" dela.

Urrezko ezteiak bete dituzten bikoteak omendu dituzte



80 urtetik gorakoek bazkaria egin zuten eguaztenean Elgoibarko Jubilatuen Biltokian, eta bazkari hori baliatu zuten zuzendaritzako

kideek aurten urrezko ezteiak bete dituzten 11 bikoteak omentzeko. Bazkarian 114 lagun elkartu ziren.



LAGUNAK
colchoneria textil hogar

180 cm-ko luzeerako koltxoietan
%5 gehituko da prezioa, eta 200cm-koetan, **%10**



LATEX BRISA KOLTXOIA

+



Luzeza: 90 | 105 | 135 | 150
Prezioa: 685€ | 745€ | 990€ | 1035€

ALTZAIURZKO MILAN OHE ARTIKULATUA



OPARI
Buzka ergonikoa

1. 3D EHUNA
2. BABES-ZORROA
3. LATEX CONFORLATEX
4. STRECH EHUNA
5. ATSEDEN INDEPENDENTEA
6. DEFUNDAGARRIA
7. ERGONOMIKOA
8. AIREZTAPEN-KANALAK
9. AKARO-KONTRAKOAK

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

PAULA CALVO

Igerilaria

✍️ Ainhoa Andonegi / 📷 Asier Orbea



9 urte zituela hasi zen igerian Paula Calvo (Elgoibar, 2009). Amak betidanik egin du igerian, eta neba ere igerilaria dauka; eta haien bidetik sartu zen bera ere igeriketan. Eibar Igerixan taldean dabil, eta estatuko onenekin lehiatzen da. Infantil mailako Espainiako Igeriketa Txapelketan hartu zuen parte uztail amaieran Sabadellen (Katalunia), eta urrezko hiru domina eskuratu zituen bizkar estiloko lasterketetan 50, 100 eta 200 metroetako probetan. Aurtengo denboraldiari begira, Europako txapelketa jokatzea gustatuko litzaioke.

“Aurtengo denboraldian Europako txapelketan parte hartzea gustatuko litzaidake”

Nola hasi zinen igerian?

Umea nintzela amarekin joaten nintzen igerilekura, eta igeriketa ikastaroan eman nuen izena. Baina ez zitzaidan gustatzen, aspertu egiten nintzen igeriketa ikastaroetan, eta laga egin nuen. Atletismoan eta balletean eman nuen izena, eta bost urtez aritu nintzen. 2018an itzuli nintzen igeriketara, 9 urte nituela. Nire neba igeriketan zebilen. Lehiatzen hasi zen, probak irabazten zituen eta hori gustatzen zitzaidan. Elgoibarren egin nituen igeriketa probak, baina nire adinekoen aldean maila handia neukala ikusi zutenez, Eibarko taldean eman nuen izena. Orduetik, Eibar Igerixan taldean ari naiz.

Nolakoak dira zure entrenamenduak?

Astelehenetik zapatuta egunero entrenatzen naiz. Bi ordu pasako entrenamenduak egiten ditut, Eibarren. Astelehenetik ostegunera 19:30etik 22:15 arte egoten naiz Eibarren. Nire entrenatzailea Debakoa da, eta bueltan berak ekartzen nau etxera, ordu horretan ez delako trenik egoten. Barikuetan 15:00etan hasten ditut entrenamenduak, eta eskolatik lehenago irten behar izaten naiz, eta zapatuetan 8:00etarako

igerian egoten naiz, 10:00ak aldera arte. Eta horrez gain, lasterketak izaten ditut. Uretan egiten dugunaz gain, gimnasioan ere egiten ditugu ariketak, eta orain, korrika egiten ere hasiko gara. Gogorra da, eta batzuetan kostatu egiten da joatea. Taldeko gazteena naiz gainera, aurreko taldekide asko unibertsitatean joan dira eta ez dira etortzen entrenamenduetara, ikasi egin behar dutelako. Egunero joaten garenak hiru gara aurreko, eta gogorra da, baina pozik nabil.

Zertan pentsatzen duzu igeri egiten ari zarenean?

Batzuetan hurrengo eguna antolatzeko erabiltzen dut tarte hori, dena ordenatzen dut buruan eta zereginak jartzen dizkiot nire buruari. Azterketaren bat daukadan egunean materia erreparatzen ere aritu izan naiz igerilekuan bueltaka, eta beste batzuetan ez dut ezertan pentsatzen. Lehiatzeko garrantzitsua da mentalki ondo prestatzea.

Lehiatzea gustuko duzu. Zein da zure indargunea?

Bai, infantiletan lehiatzen naiz, 2008tik 2010era jaiotakoekin. Bizkar estiloan aritzen naiz hoberen. Espainiako txapelketan hiru

urrezko domina eskuratu nituen bizkar estiloko hiru proba irabazita. Estilo librean ere ondo moldatzen naiz. Bular eta tximeleta estiloetan ez naiz ondo moldatzen, baina beste bi estiloekin konpentsatzen dut. Gipuzkoako txapelketetan ia beti nik irabazten dut dena. Iazko denboraldian, esaterako, ni izan nintzen Gipuzkoako igerilarien artean Espainiako txapelketan dominaren bat irabazi duen bakarra. Euskadi mailan Getxoko igerilari bat oso ondo moldatzen da estilo librean eta harekin izaten dut lehiarik handiena. Berak ere lortu zuen domina bat Espainiako txapelketan. Nik zortea izan nuen Espainiako txapelketan, nire lehiakide zuzena den madrildar batek ez zuelako parte hartu. Europako txapelketa zeukan.

Nolako esperientzia bizi zenuen Espainiako txapelketan?

Dena eman nuen. Goizeko proban ez nintzen oso fin aritu. Zortzi onenek lortzen dute arratsaldeko lasterketarako sailkatzea, eta ni seigarren postuan sailkatu nintzen. Nire denbora hiru segunduan okertu nuen, eta nire aurretik sailkatu zirenek hiru segunduko aldea atera zidaten. Arratsalderako hobeto prestatu nintzen, beste mentalitate batekin irten nintzen eta azkenean bizkar estiloko hiru probak irabazi nituen. Gainera, 200 metrokoan lortu nuen gutxieneko denborari esker Malagan lehiatzeko aukera ere izan nuen, Espainiako igeriketa txapelketa absolutuan, baina oso nekatuta iritsi nintzen Sabadelletik eta ez nuen ezer lortu. Ni baino nagusiagoak ziren denak, zaila neukan, baina esperientzia ona izan zen.

Nola uztartzen duzu igeriketa zure bizimoduarekin?

Batzuetan gustatuko litzaidake lagunekin gehiago egotea, baina nahiko ondo moldatzen naiz. Ostiraletan entrenamendua lehenago amaitzen dudanez, iluntzean egoten naiz apur bat lagunekin, baina goiz joaten naiz etxera, zapatuetan oso goiz entrenatzen naizelako. Zapatu arratsaldeetan egoten naiz lagunekin, eta igandeetan normalean etxean geratzen naiz, ikasten. Asteazkenetan entrenamenduetara joan aurretik saiatzen naiz eskolako lanak egiten. Ondo antolatzen naiz.

Aurrera begira, zein da zure asmoa?

Gustatuko litzaidake maila handiagoko talderen batera joatea. Aurten probatu nahi

nuen, baina amak esan zidan oraindik gazteegia naizela. Espainiako Igeriketa Federazioak bekak ematen ditu goi mailako errendimendu eskoletan ikasteko, eta datorren urtean agian izango dut aukera Gijon, Bartzelona edo Madrilera joateko. Ikasi eta entrenatzeko aukera izango nuke. Lagunak eta familia hemen uzteak ere ematen dit pena, nire bizitza ez delako igeriketa bakarrik. Ondo pentsatu beharko dut.

Aurtengo denboraldirako zein helburu dituzu?

Urriari hasiko dugu liga, eta martxoan neguko Espainiako txapelketan hartuko dut parte. Txapelketa horretan gutxieneko denbora bat egitea lortzen badut, Europako txapelketan parte hartzeko aukera izango dut. Sabadellen jokatu nuen txapelketan lortu nuen gutxieneko denbora hori, baina berriz errepikatu beharra daukat, European lehiatu ahal izateko. Aurten gustatuko litzaidake Europako txapelketan parte hartzea. 200 metroko bizkar estiloan lortu nuen gutxieneko denbora hori, eta espero dut errepikatu ahal izatea. 100 metrokoan ere oso gutxi falta zait Europako denboran sartzeko, eta saiatuko naiz hori ere lortzen.



Bero joan dira San Migel jaiak

Festa eta lehia uztartu zituzten asteburuan Aiastian, San Migel jaien barruan. Umeentzako jolasak, bazkaria, Haritz dantza taldearen emanaldia eta erromeria izan ziren zapatuko ekintza nagusiak, baina festaren barruan lehiarako tarte ere hartu zuten. Bolo txapelketan Unai Loiola nagusitu zen; Artxai Txakur Txapelketan, bestalde, Inazio Etxeberria eta idideman Kamiñoko idiak izan ziren irabazleak. Orriotan batu ditugu asteburuko hainbat irudi.





LOURDES BENEITEZ

Jubilatuen biltokiko presidentea

✍️ Ainhoa Andonegi 🗣️ Asier Orbea

Zuzendaritza Batzorde berria dauka Elgoibarko Jubilatuen Biltokiak. 11 emakumezko eta bi gizonezko osatutako taldeak hartu du erreleboa, eta estreinakoz emakumezkoa da lehendakaria: Lourdes Beneitez (Elgoibar, 1959). Zuzendaritza berriaren argazkia ikusita kideen gaztetasanak ematen du atentzia. Jubilatua dira guztiak, baina gazte daude eta lanerako gogotsu. Jubilazio aktiboaren erakusgarri dira, eta ideia berri pila batekin hasi dira lanean. San Bartolome jaietan egin zuten taldearen aurkezpen ofiziala Jubilatuen Eguneko bazkarian, eta orain, Jubilatuen Asteko prestakuntza lanetan ari dira besteak beste. Urte amaierara arte aurreko zuzendaritzakoekin lankidetzan arituko dira.

Jubilatuen Biltokiko presidente berria zara. Nola iritsi zara kargu horretara?

Aurreko zuzendaritzak lagatzeko asmoa zeukala adierazi zuen, eta beraiek hasi ziren errelebo bila. Iaz bidai baterako izena eman genuen Jubilatuen Biltokian, eta orduan komentatu ziguten komeni zela talde gazteago bat sartzea zuzendaritzan, baina hor geratu

“Jubilazio aktiboa sustatu eta jubilatutako gazteak erakarri nahi ditugu, baina besteak ahaztu gabe”

zen gaia. Denborak aurrera egin zuen, beraiek laga nahi zuten, eta ez zen inor agertzen erreleboa hartzeko. Egoera hori ikusita, sentitzen genuen zerbait egin behar genuela. Lagutzeko prest geunden, baina gure adinean bost urteko konpromisoa hartzea gehiegi iruditzen zitzaidan. Estatutuak dauden moduan, zuzendaritza bost urtetik behin aldatzen da, eta horrek atzera botatzen ninduen. Komentatu nuen aurreko zuzendaritzakoekin eta esan zidaten hori aldatu ahalko zela, eta beraiek lagutzeko prest egongo zirela gainera. Hori entzunda, berriz pentsatuko genuela esan genien. Urteko batzar orokorra iritsi zen, eta kuadrillakoak etorri ginen bilerara, entzutera. Zuzendaritza aldatetaren kontua iritsi zenean inork ez zuen ezer esaten, eta azkenean nik

esan nuen laguntzeko prest nengoela, baina bost urteko epealdi hori aldatuta. Baietz esan zuten denek, hori aldatzea posible zela, eta orduan jende gehiago agertu zen zuzendaritzan sartzeko prest.

13 laguneko taldea osatu duzue, 11 emakumezko eta bi gizonezko, eta estreinakoz emakumezkoa presidente.

Bilera hartatik irten zen taldea, eta gustatzen zait, ez garelako denok kuadrilla berekoak. Ezagunak gara, baina kuadrilla diferenteetakoak eta iruditzen zait hori aberasgarria izango dela. Kuadrilla berekoak izanda beti da errazagoa tendentzia berera jotzea, eta modu honetan gauza desberdinak egiteko aukera gehiago ikusten dut. Gazteak gara denok, 63-73 urte bitartekoak gara denok, eta gauza asko egiteko gogoarekin sartu gara. Ilusio handia daukagu egia esanda, eta ahal dugun ondoen egingo ditugu gauzak.

Zuzendaritza taldearen gazetetasunak atentzioa deitzen du, baina, aldiz, biltokiko 1.296 bazkideen artean %4,5a soilik da 60-65 urte artekoa.

Elgoibarren herritarren %23 dira 65 urtetik gorakoak, eta biltokiak bazkide asko ditu, nahiz izan zituen gehiago garai batean. 66-75 urte artekoak dira bazkide gehienak (%45), eta 60-65 urte artekoak gutxiengoa gara. Adin horretan oraindik jendeak bere ingurua dauka, eta lagunartean egiten dira planak. Jende gehiena sasoiko egoten da adin horretan eta ez daukate Jubilatuen Biltokiaren beharrik. Jubilazio aktiboa sustatu nahi dugu, eta jubilatuz gero erakartzeko ahalegina egingo dugu, besteak baztertu gabe, jakina. Jubilazioa ez da etxean telenobela turkiarrak ikusteko sasoia. Hori ere iritsiko zaigu egunen batean, eta egingo dugu, baina adin horretan jendeak urrun ikusten du jubilatuen biltokia. Baina 80 urteko bati gerta dakioke bere kuadrillatik bera bakarrik geratzea beste denak hil egin direlako, eta horrek bai dauka biltokiaren beharra sozializatzeko. Etxean geratzen hasten bada, gero eta zailagoa egingo zaio gero irtetea. Beraz, jende horrentzako ekintzak ere beharrezkoak dira. Pentsatzen gaude 80 urtetik gorakoentzako bazkarira eta San Bartolome Eguneko bazkarira etortzeko erraztasunak ematea jende horri. Askok bakarrik daude,

*"Biltokiko zuzendaritzan egonda
60tik 100 urte bitarterako herritarrek
ordezkatzten ditugu, eta 40 urteko
tarte horretan egoera oso ezberdinean
bizi direnak daude"*

beharbada baserrian bizi dira, eta etxekoren batek ez baditu autoz eramaten, ezin dira joan. Gai hori lantzen ari gara.

Zuzendaritzan gizonezkoak izan dira orain arte gehiengoa, baina Jubilatuen Biltokiko erabiltzaileen artean emakumezkoak dira nagusi.

Bai, zuzendaritzan genero aldaketa ekarri dugu, baina erabiltzaileen artean gizonezkoak askoz gutxiago dira. Bai, gizonezkoak erakartzeko ideiak ere baditugu, eta saiatuko gara zerbait egiten.

Kanpotik espero zenutena aurkitu al duzue zuzendaritzan sartzean?

Ekainean hasi ginen hemen zer zegoen ezagutzen, eta harrিতa geratu ginen zenbat lan zegoen ikusita. Kanpotik ematen duena baino askoz lan handiagoa egiten du zuzendaritzak. Sanbartolomeak zetozen, eta egitarauan jartzen duen "sorpresa" preparatu behar genuela. Sorpresa hori kina izaten da, eta nik ez nuen uste horrek horrelako arrakasta izaten zuenik. Biltokiko zuzendaritzan egonda 60tik 100 urte bitarterako herritarrek ordezkatzten ditugu, eta 40 urteko tarte horretan egoera oso desberdinetan dago jendea. Hasi ginenean ez nintzen kontziente, eta nire buruan zegoen irteera eta bidaiak antolatzea, baina orain konturatu naiz jende asko ez dagoela bidaiatzeko moduan eta bestelako ekintzek ere sekulako arrakasta dutela. Dantza egitera etortzen dira asko, memoria tailerrak ere harrera ona dauka, eta beste asko karta jokoan egitera etortzen dira arratsaldetan. Gainera, jubilatuen biltokia Gipuzkoako biltokien elkarlearen barruan ere sartuta dago, eta gauza batzuek elkarlanean egiten dituzte. Zer izango zen pentsatzen genuenetik aurkitu genuenera alde handia dago. Egiteko asko dago hemen; ez dira lan zailak, baina lanak dira eta horrek denbora eskatzen du. Aurreko zuzendaritzakoek sekulako lana

egin dute datu-baseak informatizatzen eta funtzionamendua zehazten, eta orain, gainera, guri laguntzen ari dira. Datorren urterako kudeaketa plana egitea tokatu zaigu, Udalean aurkezteko. Udalak dirulaguntzak ematen dizkigu eta gutxi gorabehera zer egin behar dugun esan behar genion eta aurrekontua prestatu. Arlo horretan gure helburua aurretik zegoena mantentzea da, eta ahal den heinean, gauza berriak gehitzea. Dagoena ondo dago, beraz, oinarria hori izango da, eta poliki-poliki joango gara berrikuntzak sartzen. Ideia pila bat ditugu, baina ez dakigu denak gauzatu ahal izango ditugun.

Egitekoen artean estatutuak aldatzeko asmoa duzuela esan duzu, zuzendaritza batzordearen funtzionamendu berria zehazteko. Nolakoia izango da funtzionamendua aurrerantzean?

Gure asmoa da zuzendaritzaren bost urteko epealdi hori bi urtera murriztea, eta erreleboa osotasunean egin beharrean, txandaka izatea, hau da, erdiak laga eta beste erdiak berritu. Esperientziak erakutsi digu zuzendaritza zaharrekoen beharra daukala berriak, eta uste dugu erreleboa txandaka eginez gero, egokiagoa izango dela. Guri ere Gabonak arte

"Gure asmoa da zuzendaritzaren bost urteko epealdia bi urtera murriztea, eta taldearen erreleboa txandaka egitea"

lagunduko digute lehengo batzordekideek. Ez digute inongo arazorik jarri, baina zuzendaritza txandaka berrituta, hori saihestuko genuke. Gainera, bi urtetik behin bost pertsona bilatzea errazagoa da. Borondatezko lana da, ez dugu dirurik kobratzen, baina beste gauza batzuk ematen ditu, esaterako, lagunak. Jende berria ezagutzen da, eta hori beti da interesgarria.

San Bartolomeetako jubilatuen bazkarian izan zen zuen zuzendaritzaren aurkezpen ofiziala. Zer moduz joan zen ekitaldia?

Oso ondo. Egun horretan ere ikusi genuen nolako perfila dagoen gure bazkideen artean. Orain dela urte batzuk ere egon nintzen bazkari horretan laguntzen, eta orduan jende nagusi gehiago egon zela iruditu zitzaidan. Aurten gazteagoak ere ikusi ditut.





SAGARRONDO ARTEAN KORRIKA

👉👉 Ainhoa Andonegi

Domekan jokatu zuten estreinako Lizagasar Erronka, Casa Astigarraga Trail taldeak antolatuta. Lizagasar Sagartokiko sagastian 8 bat kilometroko ibilbidea osatu behar zuten partehartzaileek, 750 metroko desnibel positiboarekin. 27 lagunek hartu zuten parte, tartean lau emakumek. Bost korrikalarik ez zuten proba amaitu. Iñaki Goenaga gogor hasi zen hasieratik, eta lehenengo metroetan lortutako diferentzia amaierara arte mantendu zuen. Bera izan zen helmugan azkarrena, 53:01 denborarekin. Martin eta Pablo Egizabal anaiak sartu ziren bigarren eta hirugarren postuetan, 57:26 eta 58:37 denborak eginda. Emakumezkoetan lau lagunek hartu zuten parte, eta Lorea Totorika ermuarra izan zen azkarrena 1:11:38 denborarekin. Alazne Lozano izan zen bigarrena 1:16:51 denbora eginez, eta Pilar Arriola sailkatu zen hirugarren lekuan 1:19:12 denborarekin. Argazki gehiago: barren.eus





“Ispilu bat jartzen dugu bizitzari barre egiteko, nahikoa barregarri bada-eta”

JOSU ZUBIA 'POTX'

Pailazoa

✍️ Ainara Argoitia / 🎭 Potx eta Lotx

Potx eta Lotx pailazo taldeak 'Aireportuan' bere azken lana emango du Herriko Antzokian, urriaren 22an, 16:30ean, eta sarrerak salgai daude dagoeneko herrikoantzokia.eus webgunean. Emanaldi berezia izango da, saioa grabatu egingo dutelako.

Estreinakoz zatozte Elgoibarrera. Aurkeztu egiguzu zuen proiektua.

Lau laguneko pailazo taldea da gurea. Itziar Arkauz (Lotx), Danel Teran, Ander Murillo eta neu, Josu Zubia (Potx), gara eta 2017an ekin genion egiteko honi, pailazoaren figura goraiatzeko eta pailazoei gizartean dagokien lekua emateko. Antzerkia, dantza eta musika uztartzen dituzten lau ikuskizun sortu ditugu geroztik, azkena, Elgoibarren emango dugun hau, eta horrez gain, formazio saioak ere ematen ditugu. Era berean, bideoklipak eta bideo ugari ere sortu ditugu, eta denetan saiatzen gara pailazo klasikoaren umorea zabaltzen.

Zer esan nahi duzu pailazo klasikoaren umore horrekin?

Pailazoa beti lotu izan da umeekin eta horrek ekarri du pailazoaren figuraren infantilizazio halako bat. Gu horren kontra gaude. Umeei barre eginaraztea garrantzitsua da, bai, baina guretzako pailazoaren egitekoa hori baino gehiago da. Guk ispilu bat jartzen dugu, bizitzari barre egiteko, nahikoa barregarri bada-eta. Askotan helduoi pasatzen zaigu ez diogula gure buruei baimenik ere ematen pailazo batek egiten dituenekin barre egiteko, ez dugulako nahi inork umetzat har gaitzan, edo inozotzat. Tematzen gara perfektuak bagina bezala agertzen, eta egiaz, ez dago hori baino gauza barregarriagorik. Giza miseriei gorazarre egitea da gurea. Pedagogia-eta



halakoak ez ditugu gustuko, pailazo batek ezin duelako zer egin esan. Barre egin eta eginaraztea da gurea. Antzokira datorrenak barre egingo du, horretarako baimenik ematen badio bere buruari. Familia osoarentzako ikuskizuna da, baina guk 6 urtez gorakoentzat proposatzen dugu.


Zein izango da gaia? Zein adin tarteri zuzendutako ikuskizuna da 'Aireportuan'?

Los Angelesera bidaiatzeko ametsa betetzear dira Potx eta Lotx. Urteak eman dituzte dirua aurrezten eta iritsi da bidaiia hasteko eguna. Eta iritsi dira aireportura, pozez zorutzen, baina megafoniatik entzun dute euren hegaldia atzeratu egin behar izan dela ezinbestean. Aireportuan luzaro egongo dira zain eta erabakiko dute Gasteizera bidaiatzea. Eta bitarte horretan aireportu batean pasatu daitezkeen gauza guztiak gertatuko zaizkie.

Ikuskizuna grabatu egingo duzue. Nolatan aukeratu duzue Elgoibar? Eta grabazioa izanda, mezuren bat bidali nahiko al zenieke ikusleei?

Elgoibar aukeratu dugu, antzokia bera gustatzen zaigulako, egokia iruditzen zaigulako eta libre zegoelako egun horretan. Elgoibarrera goazen estreinako aldia da eta ilusioz gaude. Etortzeko asmoa dutenei, berriz, esango nieke etortzeko ondo pasatzera eta ahal badute, etortzeko aurpegiak margotuta, mozorrotuta edo apaingarriren bat hartuta. Edozer, berdin dio zer.

'Belarriko kilkerak' eta 'Surflaria' eman ditu argitaratu Uxue Alberdik



Bi lan berriekin dator Uxue Alberdi: *Belarriko kilkerak* eta *Surflaria*. Joan zen astean argitaratu zuen Susana Martín komikilariarekin batera *Surflaria* albuma (Ikastolen elkarte). Bizitzaren eta heriotzaren urek bat egiten duten istorioa da *Surflaria*. Amaiak, komikiko protagonista nagusietako batek, jasoko duen telefono dei batekin hasten da istorioa. Dei horretan esango diote hamar urte igaro ostean hiltzat jo dutela Eki, itsasoan desagertu zitzaion laguna.

Martitzenean aurkeztu zuen, bestetik, *Belarriko kilkerak* narratiba liburua (Elkar, 2023), Donostiako Udal Liburutegiko sotoan. Ahoz kontatu eta belarriaz jasotako testuak dira liburukoak, eta ahozkoasuna, memoria, transmisioa, eta giza kondizioaren oinarriak biltzen dituzte, Alberdiren esanetan. Begoña Durruyk ilustratu du liburua.

Domekara arteko epea dago Elgoibarko Udalaren egutegirako argazki lehiaketan parte hartzeko

2024ko egutegia osatzeko argazki lehiaketa antolatu dute aurten ere Elgoibarko Udalak eta Ongarri Argazki Taldeak, eta domekan, urriaren 8an, bukatuko da argazkiak aurkezteko epea. Argazkiak 2022ko urritik 2023ko urriaren 23a bitartean Elgoibarren ateratakoak izan beharko dira, eta Elgoibarren jaio, bizi, ikasi edo lan egiten dutenek parte hartu ahal izango dute lehiaketan. Guztira hamahiru sari banatuko dituzte eta saritutuek 80 euroko bonua jasoko dute saritutako argazki bakoitzeko. Informazio gehiago jaso nahi duenak Elgoibarko Udalaren Euskara Sailera jo behar du. Harremanetarako: euskara@elgoibar.eus edo 943 744 366.

'Berbazulo' egitasmorako hezitzaile bila ari da Elgoibarko Izarra

Elgoibarrera etorri berri direnentzako errefortzu saioak ematen dituzte Berbazulo egitasmoaren baitan eta aurtengo ikasturterako hezitzaile bila ari da Elgoibarko Izarra. Saioak sortu, planifikatu eta emango dituzte aukeratuek. Aste barruan beraz, barne bilerak eta saioak izango dituzte. Informazio gehiagorako: 943 741 746 edo aisialdia@elgoibarkoizarra.eus.



Errosarioko amaren ezpata-dantza dantzatuko dute bihar Elgoibarren

Urteroko usadioan, Errosarioko amaren ezpata-dantza dantzatuko dute bihar Haritz Euskal Dantzari Taldekoek. 11:00etan da meza nagusia, eta elizan, ezpata-txikiak dantzatuko dira, eta ondoren, kalez kale arituko dira dantzan. San Bartolome parrokia aurrean hasi eta izen bereko kaletik Errosario kalera joko dute, Udal txistulari taldekoek lagunduta, eta bidean geldialdiak egingo dituzte dantzarako: eliza atarian, Kultur Etxe aurrean, Errosario kalean, eta azkena, udaletxe aurrean.

Jose Reyes leioarrak irabazi du Mendaroko aire libreko margo lehiaketa

Hogeita hamabi lagunek parte hartu zuten Udalak antolatuta zapatuan Mendaron egin zuten aire libreko margo lehiaketan: 18 nagusik eta 14 urtez azpiko hamalau gaztek. Aitor Etxeberria artista mendaroarrak eta Aitor Sarasketa artista eibartarrak osatu zuten epaimahaia eta nagusien sailean aurkeztu zituzten hamazazpi lanen artean Jose Reyesena aukeratu zuten onenentzat. 700 euro jaso zituen Reyesek. Bigarren lanik onena Jose Miguel Arranz erandioarrarena zela erabaki zuten, eta 500 eurekin saritu zuten, eta hirugarren eta laugarren sariak Jorge Lopez gasteiztarrak eta Eneko Arruza lekeitiarrak jaso zituzten, hurrenez hurren. Hirugarren eta laugarren sarituek 300na euro jaso zituzten.

14 urtez azpikoen artean, A eta B mailak bereizi zituzten, adinaren arabera. HH2tik LH2ra artekoen lanak sartu zituzten A taldean, eta LH3tik DBH3ra artekoenak, B mailan, eta lau sari banatu zituzten, maila bakoitzeko bina. A mailan, Intza Alkorta eta Libe Zulaikaren lanak



nabarmendu zituen epaimahaiak, eta B mailan, berriz, Aintza Mendikute eta Paula Arruzarenak. Euro baten truke errifak ere saldu zituzten Udalekoek eta nagusien saileko bigarren lan saritua zozkatu zuten errifak erosi zituztenen artean. 85. zenbakia izan zen saritua, eta Luis Mendikuteri egokitu zitzaion saria.

Margo lehiaketako lanekin erakusketa osatu du orain Udalak, Lagun Betikoak ondoko lekoean, gaurtik domekara. Ordutegia: 12:00-14:00 / 18:00-20:00.

Erromeria egingo dute gaur arratsaldean Azkueko belardian

Familientzako erromeria antolatu dute gaur arratsalderako Elgoibarko Izarraren Atxutxiamaika aisialdi taldeak, Inazio Bereziartua musika eskolak eta Udal Ludotekak. Azkue auzoko ermita ondoko zelaian egingo dute erromeria, 17:00etatik aurrera, eta antolatzaileek jakinarazi dute musika eskolako ikasleen emanaldiak izango direla, bai eta instrumentuak sortzen ikasteko tailerrak ere.



AVIA gasolindegian zerbitzuaren egutegirako aukeratu dute Jose Ramon Cabreraren argazki bat

Jose Ramon Cabrera elgoibartarrak Azkoitiko gasolindegian egindako argazki bat aukeratu du AVIA gasolindegian zerbitzuaren egutegirako. 1.600 argazki aurkeztu dituzte sariketara guztira, eta horietatik hamalau aukeratu dituzte. Joserra Cabrerarena martxoan iragartzeko aukera dute.



'Tabuen kutxatik oholtzara' bertso-saio solidarioa taularatuko dute Elgoibarren, hilaren 20an



Minbiziaren errealitatea ikuspegi feminista eta eraldatzaile batetik zabaltzeko eta normalizatzeko sortu zuen Izan Inurri elkarteak *Tabuen kutxatik oholtzara* bertso saio musikatua, eta urriaren 20an Elgoibarrera ekarriko dute, Herriko Antzokira. 19:00etan hasiko da bertso-saioa eta sarrerak salgai daude dagoeneko *izaninurri.eus* webgunean, 8 euroan. Uxue Alberdi, Miren Amuriza, Oihana Bartra eta Nerea Ibarzabal arituko dira bertsoan eta beste bertsolari batek egingo ditu gai-jartzaile lanak: Amaia Agirrek. Bertsolariei laguntzen Gari Otamendi eta Ixak Arruti musikariak arituko dira oholtzan. Sarreretatik lortutako irabazi guztiak Iñurri elkartearentzat izango dira, minbizia dutenei eta haien ingurukoei laguntzeko sortutako elkartearentzat.

Julene Illarramendi, Miren Cuerdo eta Jone Zabala lasartearrek sortu zuten Izan Inurri taldea, Illarramendiren ama [Eba Elexpuru] minbiziaren hil eta bi urtera, eta Elexpuruk gorputzean tatuatuak zituen "inurri langileei" zor die elkarteak izena. Sortzaileek aitortua dute pretentsio handirik gabe sortu zutela elkarte, minbizia dutenen alde zerbait egiteko, eta hala hasi zirela kamisetak eta zapi solidarioak josten eta saltzen, dirua bildu eta dohaintzan emateko [Zapi bat erosten duen pertsona bakoitzeko gaixo batek beste zapi bat jasotzen du]. Orain, baina, beste dimentsio bat hartua du elkarteak [1272. zenbakian azaldu zuten gutzia Mari Seara

Eizagirrek (Deba, 1972) eta Jordina Arnau Roigik (Selva del Camp, Katalunia, 1991) *BARREVEN*]. Minbizia dutenen errealitatea eta gorputzak erakusteko, podcastak [(*MIN*)*Bizi euskaraz* eta *Dragon Cancer* gaztelaniaz] sortu ditu Inurrik, antolatu ditu formazio saioak han eta hemen, eta sortu dute inurriek sare bat minbizia zuzenean edo zeharka bizi izan dutenena, elkarri entzuteko, elkar zaintzeko eta beren beharrei erantzuteko. "Espazio librea, segurua eta konfiantzazkoa" sortu dutela diote beren webguneko aurkezpenean, minbizia normalizatzeko eta gaixotasunaren inguruan tabu barik berba egiteko. Eta egiten dute hori dena ikuspegi feminista eta eraldatzaile batetik, minbizia diagnostikatu izan dieten asko konturatu direlako osasuna ere gizonezkoen ikuspegitik aztertzen dela gaur, eta ondorioz, kontsultategian deseroso sentiarazi dituzten galderak eta erantzunak jaso behar izan dituztela sarri.

Eta testuinguru horretan kokatzen da *Tabuen kutxatik oholtzara* bertso-saioa ere. Minbiziari lotutako gaiak jarriko dizkie Agirrek, baina inork ez dezala pentsa dena tristeza izango denik. Searak eta Arnauk argi esan zuten agerkari honi emandako elkarrizketan desesperazioan ezin dela bizi eta burua jaso eta bitzta besarkatzeko nahia erantzuten diola Izan Inurri elkarteak, bai eta bertso saio honek ere. Beraz, negar, barre... denerako aukera izango du urriaren 20an Herriko Antzokira gerturatzen denak.

'Gaitu.eus' webgunea martxan da euskarazko ahotsak biltzeko

Makinek eta teknologia berriek euskara ulertu eta berba egin dezaten, lehenago irakatsi egin behar zaie, eta horretarako jarri dute abian *Gaitu* kanpaina Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak, euskarazko milaka ahots biltzeko. Izan ere, egungo teknologiek testuzko eta ahozko datu masa erraldoiak eskatzen dituzte. *Gaitu.eus* webgunea sortu dute horretarako. Ahotsak biltzeko *Common voice* izeneko plataforma irekia erabiltzen ari dira, eta webgunean sartzen direnei bi lan proposatzen dizkiete: Batetik, idatzita dagoen esaldi bat irakurtzeko, grabatzeko, eta bestetik, beste hiztun batzuek grabatutako esaldiak balioztatzea. Bata zein bestea nahi beste aldiz egin daiteke. Abenduaren 3a bitartean egin nahi dute ahalegina, Euskararen Egunerako.

Ekimenarekin bat egin du Elgoibarren Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak, Udalarekin elkarlanean, eta abenduaren 2rako grabazio masiboa antolatu dute. 11:00etatik 14:00ak bitartean egingo dute, Aita Agirren, eta parte hartu nahi dutenek izena eman beharko dute. Izena emateko nahiz informazio gehiago jasotzeko: kudeaketa@elgoibarkoizarra.eus helbidera idatzi behar da edota 643 499 169 telefono zenbakira deitu (Amaia).

Hezkuntza Legeak euskara gehiago izan dezan eskatzeko kanpaina, abian

Hezkuntza Legeak euskara gehiago izan dezan eskatzeko sinadura bilketa hasi du Euskalgintzaren Kontseiluak. Hiru dira zehazki Eusko Legebiltzarreko kideei kontuan hartzeko eskatzen zaizkien puntuak: Euskara ikas- eta irakats-hizkuntza izango duen eredu orokortu inklusiboa sustatzea; euskal kultura ardatz izango duen euskal curriculum osatzea; eta hezkuntza ez-arautua osorik euskaraz garatzeko bidea jartzea. Helburu horiekin bat datorrenak, honako loturan sartuta eman dezake atxikimendua: hteuskaragehiago.eus.

'Sustraiak' dokumentala emango dute urriaren 19an, Lilan



Sustraiak dokumentala emango dute urriaren 19an, Elgoibarren, Lilan. Emakume baserritarren errealitatea bistartzeko asmoz zuzendu zuten dokumentala Ander Beizama eta Ander Espargallas zarauztarrek, eta Elgoibarren izango dira haiek ere emanaldiaren egunean, solasaldirako gertu. 18:00etatik 19:30era izango da, euskaraz, eta herritar guztientzat irekita.

Rosa Villafuerte argazkilariaren 'Angeles de la Guarda' erakusketa Aita Agirre Kultur Kafean



Bidez Bide Gizarte Sustapenerako Kultur Arteko Elkarteak antolatu du erakusketa, Aita Agirre Kultur Kafean, urriaren 11tik 22ra bitarterako (tabernako ordutegian ikusi ahalko da). Diziplinarteko lantaldea da Bidez Bide, ikuspegi transkulturala eta dekoloniala duena, eta genero ikuspegitik garatzen dituen bere proiektuak. Erakusketa honetarako Rosa Villafuerte argazkilariaren argazki sorta bat aukeratu dute, eta *Angeles de la Guarda* izenburua eman diote sortari. 2010ean Liman (Peru) ateratako argazkiak dira guztiak, atzerrira migratu duten amen seme-alabak zaintzen dituzten amamei egindako argazkiak dira erakusketan ikusiko direnak.

Bakardadearen inguruko kontakizun lehiaketa antolatu du Nagusilanek, bigarren aldiz

Kontakizun lehiaketa antolatu du Nagusilanek 60 urtez gorakoentzat. Bakardadea da lehiaketarako aukeratu duten gaia eta partehartzaile bakoitzak gehienez bi lan aurkeztu ahal izango ditu urriaren 30a baino lehen. Lan guztiak A-4 formatuan aurkeztu beharko dira, mekanografiatuta, eta gehienez 2.500 hitzeko testuak izan beharko dira [Tarte bikoitzean eta Arial 11 letra motan edo antzekoan]. Sariketara aurkezten diren gai guztiak aurrez beste inon argitaratu gabeak izan beharko dira, eta zazpi sari banatuko dituzte. Lehiaketarako oinarriak, hemen: *nagusilan.org/ii-concurso-de-relatos*.



17. logela izeneko ihes-gela ibiltaria Elgoibarren izango da azaroaren 3tik 5era

Euskaraz barra-barra egitasmoaren baitan sustatu du Eusko Jaurlaritzak *17. logela*. ihes-gela. Euskaratik eta euskaraz sortutako ihes-gela da eta euskara ulertu edota hitz egiteko gai den 16 urtez gorako edonori dago zuzenduta. Aisialdiaz euskaraz gozatzeko aukera eman nahi du, eta azaroaren 3tik 5era bitartean Elgoibarren izango da. Gehienez, 5 lagunek parte hartu dezakete saio bakoitzean, espazioari eta jokoaren ezaugarriei behar bezala erantzuteko, eta saio bakoitzak 40 minutuko iraupena izango du. Denbora tarte horretan ihes-gelatik irtetea lortu ezean, amaitutzat emango da jokia.

Ihes-gela probatu nahi duenak Internetez egin behar du erreserba helbide honetan: *euskarazbarrabarra.eus/ihes-gela*. Sartu eta agendan Elgoibar aukeratuta [Astelehenean zabalduko dute izena emateko epea]. Txanda ezberdinak antolatuko dituzte eta ordutegia honakoa izango da: ostiral arratsaldean 17:00etatik 21:00etara, eta zapatu eta domekan, 10:00 etatik 14:00etara goizez, eta arratsaldez, 17:00etatik 21:00tara. Partehartzea doan izango da.

Webgunean zehazten dute gurgildun aukia behar dutenek ere irisgarritasuna bermatuta izango dutela ihes-gelan.

Edoskitzeari buruzko argazki lehiaketa antolatu du ESI Debabarrenak



Amagandik edoskitzeari buruzko argazki lehiaketa antolatu du aurten ere ESI Debabarrenak. Partehartzaile bakoitzak gehienez hiru argazki aurkeztu ahal izango ditu, koloretan nahiz zuri-beltzean eta *bps*. *osidebabarrena@osakidetza.eus* helbidera bidali beharko ditu azaroaren 13a baino lehen. Sari banaketa abenduan egingo dute Mendaroko ospitalean. Saridunari telefono bidez jakinaraziko diote aurrez.

54 lagunek parte hartuko dute Mendaron abenduaren 2rako iragarri duten apustuan

Iazko ekainean apustu berezia jokatu zuten Mendaron 24 gaztek. Taldeka, erreleboka, Herriko Enparantzatik Gaintxiplara arte nor azkarrago iritsi izan zen joko. Alain Zulaika, Patxi Salegi eta Ander Gorostegi gailendu ziren azkenean, 33:00:12ko denbora eginda. Apustua errepikatzea erabaki dute aurten, baina are bereziagoa izango da, herriko beste kuadrilletara ere zabaldu dutelako erronka eta guztira 54 lagunek, neska eta mutil, eman dutelako izena. Taldeka, erreleboka, Herriko Enparantzatik Gaintxiplara arteko bidea egin beharko dute aurten ere. Etxebeko bidegurutzean eta Berasaluzen emango dituzte erreleboak. Kuadrilla ezberdinetako jendea dago izena emandakoen artean, baina taldeak orekatzea beti denez zaila,



zozketa bidez osatu dituzte taldeak. Domeka iluntzean egin zuten zozketa eta hiru laguneko hemezortzi talde egin dituzte.

Abian da Mugertza krosa iragartzeko kartel lehiaketa

Mugertza krosaren 80. ekitaldia jokatu dute 2024ko urtarrilaren 7an, eta zerbaki berezi honetara ailegatu izana ospatzeko kartel lehiaketa jarri dute martxan antolatzaileek, Mintxeta Atletismo Taldeak eta Elgoibarko Udalak. 16 urtetik gorakoek parte har dezakete. Erabili beharreko teknika librea izango da, eta lanak euskarri zurrunean aurkeztu beharko dira, A3 tamainan (297 mm x 420 mm) edo proportzionalean. 300 p.p.p-ko bereizmena behar da. Egile bakoitzak gehienez bi lan original eta argitaragabekin parte har dezake. Ez dute onartuko antzeko lehiaketetan aurkeztutako obrarik. Diseinu irabazleari 500 euroko saria emango diote. Lanek honako testuak eduki behar



dituzte: "LXXX. Juan Muguerza Nazioarteko Krosa" eta "ELGOIBAR 2024/01/07". Lanak 2023ko azaroaren 3ko 13:00ak baino lehen entregatu beharko dira Olaizaga Kiroldegian (San Roke kalea, 1). Informazio osoagoa eta oinarriak elgoibar.eus webgunean.

Elgoibarren jokatu dute emakumezkoen Euskadiko Aizkolari Txapelketako finala

Euskadiko Herri Kirol Federakundeak eta Elgoibarko Udalak antolatuta, emakumezkoen Euskadiko Aizkolari Txapelketaren finala jokatu dute, urriaren 15ean, domeka, Elgoibarren. Horrekin batera, 2. mailako gizonezkoen aizkolari txapelketaren kanporaketa bat ere jokatu dute. Kalegoen plazan izango da herri

kirol jaialdia (Euria bada, Olaizaga Kiroldegian), 12:00etan hasita, eta debalde. EITBk zuzenean emango du finala, eta urriaren 10ean egingo dute txapelketaren aurkezpena udaletxean, lehiatuko diren sei aizkolariak bertan direla: Nerea Arruti, Nerea Sorondo, Oihana Fernandez, Maika Ariztegi, Malen Barrenetxea eta Ane Zapirain.

Arkaitz eta Leire Egaña ehiztariak, Gipuzkoako txapelkun



Debabarreneko Ehiza Xehe Txapelketan gertatu zen moduan, Arkaitz eta Leire Egaña neba-arrebak izan ziren onenak, aurreko zapatuan, Zanbranako El Castillo ehiza barrutian jokatu zuten Gipuzkoako txapelketan ere. Gizonezkoetan Arkaitz Egañak lortu zuen titulua, zortzi eper eta galeper bat ehizatuta. Irabazten duen Gipuzkoako laugarren txapelketa da honakoa Arkaitz Egañarentzat. David eta Carlos Conde anaia elgoibartarrak ere lehiatu ziren Gipuzkoako txapelketan. Bosgarren postuan sailkatu zen David eta 10. postuan Carlos. Senior emakumezkoetan Leire Egañak irabazi zuen, bi eper eta hiru galeper ehizatuta. Gipuzkoako seigarren titulua du. Seniorretan lehen bost postuetan sailkatu ziren ehiztariak lortu dute Euskadiko txapelketan aritzeko sailkatzea. Domeka honetan, urriaren 8an jokatu dute Euskadiko Ehiza Xeheko Txapelketa, Zanbran.

Zabalik da Sanlobeer garagardo azoka

Egunean zabaldu zuten Sanloren garagardo azoka hartzen duen karpa Maalan, eta domekara bitartean zuzeneko musika emanaldiek, bingoak edo dantzaldiek girotuko dute Sanlobeer festa. Garagardoaz gainera, egunero salduko dituzte ukondoa, saltxitxak, patata purea, oilaskoa eta patata frijituak. Pintxo potea ere antolatu dute eguen eta bariku arratsalderako eta zapatu goizerako. Azken egunean, domekan, paella erraldoi bat prestatuko dute, eta txartelak aurretik hartzea gomendatu dute. Urtero moduan, bingo solidarioa ere egingo dute Sanlokoek, bariku eta zapatu gauerdian. Zuzeneko musikak girotuko du SanloBer festa: Azkaiter Pelox Band taldeak emango du kontzertua gaur gauean (22:00) eta Melissa & The Jacks taldeak zapatu gauean, 22:00etatik aurrera.

Idotorbeko Igoera, urriaren 12an



Julian San Joanen 31. Oroimenezko txirrindulari lasterketa iristear dela-eta parte hartzera animatu dituzte txirrinduzaleak Elgoibarko Lagun Taldea txirrindulari eskolakoek. Urtero moduan, Pilarika Egunean jokatu dute, urriaren 12an. Parte hartu nahi dutenek egunean bertan eman beharko dute izena, 10:30etik 11:30era, Kalegoen plazan. Txirrindularitzan federatutakoek 5 euro ordaindu beharko dute parte hartzeko eta 10 euro gainerakoek. 12:00etan hasiko da lasterketa plazatik eta 3,8 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute Idotorbe gaineraino. Iaz 27 txirrindularik hartu zuten parte igoeran eta Mikel Perez de Obanos txirrindulari eibartarra izan da azkarrena (13:46), Iker Eskibelen errekorra (12:48) ondu ez bazuen ere. Maite Urteaga zumaiarra izan zen azkarrena emakumezkoetan.

LANA

Eskaerak

Garbiketa lanak egiteko prest nago, bulego, taberna, lantegi zein etxeetan. Esperientzia daukat. **632 008 974**

Adinekoak zaintzeko prest. Zerbitzari lanak ere egingo nituzke. **614 114 360**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. **632 915 336**

Adinekoak zainduko nituzke. Titulua eta esperientzia handia ditut. Orduka. Ospitaleko zaintzak egiteko ere prest nago. **604 910 708**

Etxeak, portalak, tailerrak... garbitzen egingo nuke lan. **622 775 211**

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Etxez-etxeko laguntzaile titulua daukat. **685 724 861**

Garbiketa lanak egiteko prest nago. Urteetako esperientzia daukat. **673 764 776**

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Titulu soziosanitarioa daukat. Elgoibarren eta Mendaron egingo nuke lan. Orduka. **643 278 344**

Eskaintza

Fadek ile-apaindegirako langilea behar da. **624 646 336**

PARTIKULARRAK

12 urteko ikasleari matematika klaseak emateko prest dagoen irakaslea behar dut. **680 808 125**

KINTOAK

1950ean jaiotako kinto bazkaria, urriaren 21ean, Sigman. Talde argazkia 14:15ean Sigman bertan. Izena emateko azken eguna: urriak 16. 60 euro ordaindu behar dira eskuz, egunean bertan, jatetxera sartzean. Diru kopuru zehatza eramateko eskatu dute antolatzaileek. **664 169 402 / 686 344 252**

1978an jaiotako kinto bazkaria urriaren 21ean, Belaustegin. 12:00etan batuko dira Kalegoen plazan, eta autobusa 13:30ean izango da, Txankakuan. Bazkaria, afari-merienda eta DJa. Itzulera 23:30ean. Interesatuak 75 euro sartu behar dituzte kontu honetan, urriaren 17rako: ES0630080182831267384319 (Bizum: **607 253 909**)

Merkatu txikiko iragarkiak bi astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€. Bestelakoak: 10€.


Iragarkiari erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK: Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€.

Bestelakoak: 8€. Iragarkiari erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.


 <p>Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas Euzkoako Enpleu Administrazioaren Lanbide Erakundea</p>  <p>ROSA Mª PINTADO</p> <p><i>Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>Gure atarian, barrua berritzen ari dira etxebizitza batean, eta, antza, gelak bereizteko paretak edo trenkadak kentzen ari dira. Horrelako jarduerak egin daitezkeen jakin nahi nuke.</p> <p>Oro har, ezin da inolako obrarik egin higiezinaren edozein egitura-elementuren gainean, komunitateko kideek aho batez onartu ezean. Karga-hormak higiezinaren elementu komunak dira, eraikinaren egituraren osagai diren aldetik, eta eraikinaren kanpoaldean ez ezik, itxitura-funtzioak ere bete ditzakete barrualdean ere. Baina nahiz eta egitura-zereginik ez bete, badira beste horma edo trenkada batzuk eraikinaren gelak kanpotik mugatzeko balio dutenak, komunak edo pribatiboak izan. Fatxada kanpotik ikus badaitezke, elementu komunak izango dira. Itxiturako paretak edo fatxada horiek ezin dira eraitsi, ez osorik, ez partzialki kanpoaldearekin eta aldameneko eraikinekin komunikatzeko, komunitateko kideen aho bateko adostasuna lortzen ez bada, nahiz eta lan horiek kaltegabeak izan. Horma horiek eraikina perimetroan mugatzeko balio dute, eta jabe indibidualak ezin ditu muga horiek bere kabuz aldatu. Azkenik, jakinarazi nahi dituzt eraikineko hormen kanpoaldean ezin dela zorrotz eraberritzea, tximinetarako, publikitate-kartelarako edo bestelakoetarako eronbide berririk jarri komunitateko kideek aho batez onartu gabe.</p> <p>Ondorioa. Egituraren gaineko jarduera txikien irismena zehazten hasteak haren tratamendua betetzea ezinezkoa den kasuistika batean sartzea eskatzen du.</p> <p>GOAR AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
--	---



Argazkiak eguztzen eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEKO bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  **688 655 658** bidalita.



Martin, bixar 5 urte potolo beteko dozuz. Zorionak! Patxo potolo eta haundi bat bialtzen dizugu etxeko guztiok, eta batez ere Sarak eta Alexek! Ondo pasatu eguna!



Zorionak, **Luken!** Asteazkenean 11 urte! Muxu potolo bat Apraizko denon partez. Noiz izango da txokolatada? Gu, joateko prest!



Zorionak, **Aiur!** Atzo 8 urte haundi! Muxu asko, eta besarkada potolo bat. Asko-asko maite zaitugu.



Bederatziurrenaren barruan, bale ei da. Zorionak, **Luis**, eta urte on askotarako. Gure etxiaren luzapena bihurtu da zuen atari hori, eta hortxe ospatuko dogu, merezi moduan. Girona ezin dizugu ekarri, baina giro ona bai. Laga luzaketak, eta hasi mokadua preparatzen!



Zorionak, **Axel eta Adan**, irailaren 24an 10 urte bete zenituztelako. Infinitoraino maite zaituztegu. Ama, aita eta Hugoren partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.



KONTSULTATEGIA

Zer tratamendu egin dezaket hortzak zurrizteko?

Hortzak zurrizteko tratamendu eraginkorrenak ezagutu nahiko nituzke, zer egin dezakedan eta ekonomikoena zein den ezagutu. Halaber, jakin nahi nuke esmalteari kalterik egiten dioten.

Gure klinikan bi zurritze mota daude: bat hortz klinikan bertan gauzatzen dena, non emaitzak lehen saiotik ikusten diren, eta bestea, etxean egin daitekeen tratamendua, betiere gure jarraibideei jarraituz eta gure segimendupean egiten dena. Kasu honetan emaitza progresiboa da, eta beraz, ekonomikoagoa da. Tratamendu hauetako bat bera ere ez da gure hortzen esmalterako kaltegarria, nahiz eta bietan tratamendu osteko hortzetako sentikortasuna eman daitekeen. Horregatik da hain garrantzitsua profesional batek kasuak banaka baloratzea.



ALDAZ HORTZ KLINIKA
San Bartolome, 22 - 20870 Elgoibar
iyd@dentalaldaz.com
943 366 377

6 BARIKUA

17:00 Erromeria familian. Atxutxiamaikak, Ludotekak eta Musika Eskolak antolatuta, Azkueko berdegunean.

18:30 Miguel Trillo argazkilariaren 'Tribu Urbanoak' erakusketa ikusteko azken eguna. Kultur Etxean.

19:00 Sanlobeer garagardo azoka. Domekara arte egongo da zabalik.

7 ZAPATUA

09:30 'Euskara ala Ezkara Literaturan?' jardunaldia. IMHn. Izena emanda daudenentzat. Elgoibarko Izarrak eta Udalak antolatuta, IMH Campus eta DanobatGroupen laguntzarekin.

10:00 Artisau azoka. Artalde Elgoibarko artisau taldeko kideen azoka, Kalebarren plazan.

11:00 **etako meza nagusiaren ostean** Errosario kaleko amaren ezpata dantza. Haritz dantza taldeak antolatuta.

9 ASTELEHENA

16:00 Zaintzako eta etxez etxeko lanei buruzko aholkularitza zerbitzua, Merlin Medinarekin. Bakarkako saioak izango dira, Lilan. Hitzordua hartzeko: 688 640 983 / elgoibarzaintza@gmail.com

10 MARTITZENA

17:00 Paperezko hegoak irakurketa kluba. Gotzon Garate Udal Liburutegian.

11 EGUAZTENA

Taberna ordutegian 'Angeles de la guarda' argazki erakusketa. Kultur Kafean.

15 DOMEKA

12:00 Euskadiko aizkolari txapelketa. Kalegoen plazan. Euria bada, kiroldegian.

19 EGUENA

18:00 Dokumentala: 'Sustraiak'. Segidan, Ander Beizama eta Ander Espargallas egileekin hausnarketa saioa. Lilan.

20 BARIKUA

18:30 Antonio Arrillagaren margo erakusketa. Kultur Etxean egongo da ikusgai, azaroaren 3ra arte.

19:00 Bertso-saio musikatua: 'Tabuen kutxatik oholtzara'. Izan Iñurri minbizidun emakumeen elkarteak antolatuta. Herriko Antzokian.

DISLEXIA EGUNA

7 ZAPATUA

11:00 Umeentzako entretenigarriak, Lekuederren. Niala magoaren ikuskizuna eta Mauxitxa txarangaren kalejira.

15:00 Bazkaria eta Mauxitxa txaranga, Sanlobeer garagardo azokan.

Gauean, Aita Agirre eraikina argiztatuko dute.

EXPRESS ESKAINTZAK!

AEG
LFR611402B
ARROPA
GARBIGAILUA



499 €



- 10 kg karga
- 1400 r.p.m.
- Inverter motorra
- Propense teknologia; ura, energia eta denbora aurrezten ditu.
- Higiene programa: bakterioen eta birusen %99,99 baino gehiago ezabatzen ditu

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

Zinea Herriko Antzokian



'Barbie'

6 barikua: 21:00
7, zapatua: 19:00 / 22:15
8, domeka: 19:00
9, astelehena: 21:30

'Rally road racers'

8, domeka: 16:30

'El sol del futuro' (Ongarri)

11, eguaztena: 21:00

'Campeonex'

12, eguena: 19:00
13, barikua: 19:00
14, zapatua: 19:00 / 22:15
15, domeka: 19:00
16, astelehena: 21:30

'Superheroien familia'

15, domeka: 16:30

'Godland' (Ongarri)

18, eguaztena: 21:00



2023ko botika ordutegiak: 09:00-13:00 / 16:00-20:00
GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)
OHARRA: 2023an ez da iluntzeko farmazia zerbitzurik egongo Elgoibarren.

IRAILA

6 BARIKUA
7 ZAPATUA
8 DOMEKA
9 ASTELEHENA
10 MARTITZENA
11 EGUAZTENA
12 EGUENA
13 BARIKUA
14 ZAPATUA
15 DOMEKA
16 ASTELEHENA
17 MARTITZENA
18 EGUAZTENA
19 EGUENA
20 BARIKUA

Egunez

Garitaonandia
Arriola
Arriola
■ Fernandez
Yudego
■ Oruesagasti
Yudego
■ Ibañez
Garitaonandia
Garitaonandia
Arriola
■ Fernandez
Yudego
■ Oruesagasti
Barrenetxea

2023 urte guztian, gauzez: 22:00-09:00
Cristina Sanchez Castaño - Julian Etxeberria, 7 (Eibar)
943 203 052

■ Fernandez:
Herriko Enparantza,4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

■ Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

■ Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Eta, Debabarrenean zer?

Sagardo Eguna, Eibarren.

Eta Kitto! euskara elkarrekin Sagardo Eguna antolatu du biharko, 28. urtez. Bi zati izango ditu biharkoak: goizez, 12:00etatik 14:30ak aldera arte, eta iluntzean, 19:00etatik sagardoa amaitu arte. Txotx! herrikoiarekin zabalduko dute goizekoa, eta euskaltzalekasunaren saria ere banatuko dute. Marisol Arrillaga trikitilariak jasoko du aurten. Hain justu ere Arrillaga bera eta haren taldekoak arituko dira bihar eguerdi-partea girotzen, KIMUko txalapartariekin batera. Guztira, hamahiru sagardotegitako sagardoa dastatzeko aukera izango da: Alorrenea, Altuna, Altzueta, Astarbe, Barkaiztegi, Begiristain, Bereziartua, Gartziategi, Gaztañaga, Lizeaga, Olaizola, Sarasola eta Zelaia. Eta bateko eta besteko, 2.340 botila zabalduko dituzte guztira.





Jose Ramon Cabrera





II. URTEURRENA

Pako Kortaberria Unzueta

"Sagartei"

2021eko urriaren 11n hil zen, 92 urte zituela.

Beti gure bihotzean.

Etxeoak



I. URTEURRENA

Victorina Maiza Otxagabia

"Bittori"


Gure altxorrik preziatuenari, maitasunez.

Etxeoak

2022ko urriaren 6an hil zen, 80 urte zituela.

Haren oroimenez urteurreneko meza
izango da, zapatuan, urriaren 7an,
19:00etan, Elgoibarko

San Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrak.



Pedro Alvarez de Pablo

2023ko irailaren 26an hil zen,
65 urte zituela.

**Ez agurrik, ez adiorik;
gero arte bakarrik.**

Kuadrillako lagunak



G R E M I O N E N G I D A



PINTURA

BIOK
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120

biok@biokdekorazioa.com

ELEKTRIZITATEA

egoluz
ELEKTRIZITATEA S.L.

Andres: 630 957 345
677 512 462

Pedro Migel Uruzuno, 14 behea
20870 ELGOIBAR

Bulegoa: **943 200 697**
ego.luz@hotmail.com

AROZTEGIA

BIENA, S.L.
AROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus

ITURGINTZA

PAGOAGA S.A.

BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Uruzuno, 8
943 740 512
Fax: 943 743 555
tienda@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - ELGOIBAR
taller@pagoagasa.com
943 740 279



AROZTEGIA

iraolagoitia
aroztegia - altzariak - elxe-aldaketak

Kurutz-gain industrialdea, 9
20850 Mendaro
943 756 112
636 497 485

www.iraolagoitia.com

ITURGINTZA

SANTANA

Igor Santana

ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea, 17, behea
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com

**IZURRIEN KONTRAKO
TRATAMENDUAK**

PLAGANATURA

Oakandaketa Sokal, Ambierdi

618 198 760

ivan@plaganatura.eus
www.plaganatura.eus

AROZTEGIA

IMAR
AROZTEGIA

Olaso industrialdea, 17 behea
943 531 471
609 054 978
carpinteriaimar@hotmail.com
 @carpinteria_imar

Gidan
agertzearen onurak!

23,10€
hilera

12
aldiz urtean

4,885
ale astero

22 Eren truke, hilero, zure enpresaren datuak eta irudia erakutsiko ditugu BARREN astekarian.

BARREN astekaria da Elgoibar eta Mendaron erakuslelho ikusiena.

4.885 ale banatzen ditugu Elgoibarren eta Mendaron DOAN.

Eman bultzada euskarari eta lagundu gure proiektua finantzatzen.

943 743 704
688 769 657

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Aita Agirre Kulturunea, 3. 3. ezk
20870 ELGOIBAR